



[Español](#) | [Euskara](#)

1. [Hasiera](#)
2. [Ekitaldiak \(Jaiak\)](#)
3. Sagar Uzta - Sagarren Festa 2010

Sagar Uzta - Sagarren Festa 2010



Sagardoetxeak antolatu eta Astigarragako herriak bultzatuta, "Sagar Uzta" - Sagar Festaren X. edizioa ospatuko da.

Herria: Astigarraga

Lekua: Astigarraga

FechaInicio : 2010/09/26

FechaFin : 2010/09/26

Sagarren festa eta dolareetako lanen hasiera ospatzeko. Foru plazan bertako sagar mota ezberdinak egongo dira ikusgai eta erosi ahal izango dira, sagardoa egiteko prozesu osoa zuzenean ikusi eta 2010eko uztako lehen muztioa dastatzeko aukera ere egongo da.

Horretaz gain, beste hainbat jarduera izango dira: sagar-dantza, txalapartariak, artisautzako produktuen salmenta, sagardoaren dastatzea eta salmenta, erakustaldiak, herri bazkaria, argazki rallya eta abar.

Antolatzailea: Sagardun partzuergoa.

Egitaraua: SAGARRAREN JAI A eta III. SAGAR UZTA ARGAZKI RALLY DIGITALA (izen ematea 09:30etatik 11:00etara udaletxean, oinarriak eta oharrak esku-programan ikusi).

- **10:30etatik 13:30etara:** Haurrentzako TAILERRAK: margo eta buztin tailerra.
- **10:30etatik 14:00etara:** AZOKA Foru enparantzan.
 - **Erakusketak:**
 - Sagar erakusketa.
 - Herriko kupelen apainketa sagarrekin eta meta baten eraikuntza xexto eta sagarrekin.
 - **Erakustaldiak:**
 - Sagarraren heldutasuna, txertoak eta xexto-egileak.
 - **Dastaketa eta salmenta:**
 - Sagarrak, sagar muztioa, sagardoa, sagar-dultzea, likoreak eta Astigarragako hostalariak bertako sagarrekin egindako elaborazioak eskainiko dituzte.
- **11:00etan:** 2010 uztako lehen muztioaren elaborazioa.
 - Sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.
- **12:30etan:**
 - Sagar dantza.
 - Kirikoketa.
- **13:00etan:** Txalaparta eta ekoiztutako muztioaren dastaketa.